

Denboraren joana ;

oroitzeko beharra

Denbora ez da inoiz alferrik igaro; bidean lorratzak uzteko gaitasuna erakutsi du beti. Horregatik, mendeetan barrena askok eta askok arerioatzat jo dute; askoren aurpegietan arraildurak sortu ditu; batzuen oroitzapenak lapurtu; beste batzuen erraiak usteldu; eta ororen argia betiko itzali.

Horren guztiaren lekuko izan naiz, gertakari horien lekuko isila eta leiala. Usu, denboraren beraren gaizkide bilakatu naiz, eta halaxe igaro ditut mendeak, lur honetara gogor lotuta, sustrai sendoek bertara lotzen naute-eta. Denborak, zorionez, ez du lortu ni jatorritik deserrotzea, eta gaur ere zutik jarraitzen dut, tinko: haizete indartsuei zein eurite gogorrei aurre eginez.

Bizitzan zehar, ene magaletik hamaika lagun igaro dira; belaunaldiz belaunaldi ugari izan ditut babespean. Gehienak urte askoan bizi izan dira, eta haien guda odoltsuen lekuko izan naiz, baita maitasun istorioen ikusle isilkorra ere. Bai; apopilo guztien irriak zein negar malkoak ikusi ditut, eta euren sekretu ezkutuenak eta sutze aldien oihu bortitzenak entzun ere bai.

Urteetan, mendeetan, lur honetako hizkuntza gozoa eta izaera sakona jagon ditut; handikien arrotzasunetik babestuz eta izateko modua gizaldiz gizaldi igorritz. Ez da lan samurra izan,

arroztasuna inguruan maiz gailendu zaigu-eta. Haatik, atzoko kantuak memoriaren hormetan idatzi ditut, eta atsoen hitzak zein kondairak sutondoan betiko iltzatu, herriaren usadioak sekula gal ez daitezzen.

Ene bizitzaren hasierak handitasuna ekarri zidan; denborak, baina, eraman zuen; hura igaro ahala, gero eta gutxiago zaindu ninduten, gero eta gutxiago atondu, gero eta gutxiago maite... Ezkutuan utzi nahi den oroitzapen mingarria bezala neu ere urrun gorde ninduten; haiengandik aldendu, eta babesleku izatetik joandako garaiaren sinbolo hutsa izatera iragan nintzen...

Bai; niri ere denborak eraso egin zidan; eta konturatu orduko, arraildurak besteen azalean ez ezik, nire bazterretan ere agertzen hasi ziren. Denboraren iraganak, askori gertatzen zaion legez, ni ere bakarrik utzi ninduen. Ordura arte nire baitan dantza egindako kondairak, hizkera, usadioak, kantak... harri azpian eta habeek ezkutatuta geratu ziren; ikusezin, mutu, azken finean.

Eta goiz batean, iratzartzeko oilarraren kukurrukuaren zain nengoela, konturatu nintzen bizilagun guztiek ihes egin zidatela, eta egun hori lotan eman nuen, hurrengoak bezala, hurrengo hilabeteak eta urteak bezalaxe. Estu eta larri arnasten hasi nintzen; egitura zaharrari eutsiz biziraun nuen, oroitzapenak lausotzen zitzaizkidan bitartean.

Baina letargia bukatu zen; orduan, otsail hasieran makilen kantuek lurra esnatzen duten bezala, neu ere kolpeen bidez iratzartzen hasi nintzen, eta denboraren poderioz, -berriro ere-

arnasbideak ireki nituen, eta galdutako grina berreskuratu. Hasiara batean, ez nuen neure burua errekonozitu, garai zaharretan gordetakoak oso bestelakoak ziren-eta.

Bat-batean, atzoko etxeko giroan hegan egindako sagar usaina antzeman nuen, berriro ere. Pixkanaka-pixkanaka neure txokoa, jendarte berri honetan neure zeregina topatu nuen, neure ekarpen berria egiten ikasi nuen; hitz batean, biziberritu nintzen... ninduten...

Orduan, gogoratu nuen: gure lurraldeen sinbolo soil bat baino askoz gehiago naiz: gure izateko eraren gordailua, gure nortasunaren fizki larria, transmisioaren oroitze tresna garrantzitsua.

Denborak mina ematen du, zalantzarik ez; baina benetan izatea suntsitzen duena ez-memoria da: ahaztea, alegia. Oroitu, bizilagun maitea, oroitu ezazu. Gogoratu zergatik, zertarako sortu ninduten, eta oroimena tresna izanik, hori betiko gorde; baina, betiere, ingurua begiztatu, ingurura egokitu zaitez, arren.

Ni, beti bezala, hementxe izango naiz, bizikide: Igartubeiti baserria nauzu, zeure gordeleku gailena; beraz, ez nazazu ahantz. Horrela, beste hainbeste menderen ostean, gizaldi berri edo ez hain berri batean, gure hizkuntza eta aiurri sakonaren eramaile izaten jarrai dezadan.

Igartubeiti baserria, betiko gordeleku